


# berria



**PAMIELA  
ARGITALETXEAK  
40 URTE**

KULTURA | 20-21



GEHIGARRIA

IDOIA ZABALETA / FOKU



**UNAI  
HUALDE**

Nafarroako  
Parlamentuko  
presidentea

«Ez da ikusten  
oraindik bloke  
aurrerakoia  
eta eskuineko  
blokea  
haustea»

EUSKAL HERRIA | 4-5

## Nafarroak 67 milioi euroko superabita erabili nahi du inbertsioetarako

- Gobernuak 2025eko aurrekontu aurreproiektua onartu du. Denera, 6.431 milioi eurokoa aurkeztu du.
- EH Bilduren ekarpenak jaso ditu, eta «aurrekontuetako bazkide» gisa definitu du.

EKONOMIA | 10

JIMMY CHIN / NATIONAL GEOGRAPHIC



## Everesteko enigmaren pieza

National Geographic-en lantalde batek Andrew Comyn Irvine *Sandy* alpinistarenak izan daitezkeen gorpuzkiak aurkitu ditu munduko mendirik garaienan, desagertu eta 100 urtera. Harekin batera hil zen George Malloryren gorpua 1999an aurkitu zuten. Tontorrera iritsi ote ziren argitu nahi dute. **KIROLA | 19**



### Berrueta oroitzeke plaka jarri dute

Iruñeko Udalak aitortza eta omenaldia egin dio Espainiako polizia batek eta haren semeak 2004an hil zuten okinari.

EUSKAL HERRIA | 6

### Japoniako arma nuklearren aurkako borrokari aitortza egin dio Bakearen Nobel sariak

Nihon Hidankyo gobernuak kanpoko erakundea saritu du Norvegiako Nobel Batzordeak: «Testigantzen bitartez, erakutsi dute munduak ez lukeela berriz arma nuklearrik erabili behar».

MUNDUA | 13



● KARABANAK KNAUS • ERIBA

● AUTOKARABANAK HYMER • KNAUS • BENIMAR • PILOTE



Salmenta ondorengo zerbitzu bermatua

20140 ANDOAIN - Gipuzkoa (saihesbidearen ondoan)  
Tel.: 943-59 32 90

[www.itsasmendi.com](http://www.itsasmendi.com)

Joxerra Senar

IRUÑEA— 2007an, Fernando Purgas orduko eledun sozialistak esan zuen Nafarroa ez zegoela prest abertzale bat izateko parlamentuko presidente. Orduetik gauzak asko aldatu diren isla argia da Unai Hualde (Altsasu, 1976). Parlamentuko presidente gisa bigarren legealdia du honako hau, eta eskuin muturraren presentziak legebiltzar barruko giroa «zapuztu» duela onartu du. «UPN eta PPren eragin du, eta muturrera jo dute diskurtso batzuetan». Egoera politikoa, legealdiko erronka eta EAJko barne prozesua izan ditu hizpide, Hualde Napar Buru Batzarreko presidente baita egun.

### Legealdia zertan da oraintxe bertan?

Gobernu berriak badarama urte bat. Finkatu egin da, eta barkamen garaia ere amaitu zaio. Normalean, aurrean dugun urte politikoa legeak eta neurriak parlamentura ekartzeko garaia da, eta horretan gaude. Aurrekontuak izango ditugu berehala, eta horretaz harago, lege garrantzitsuak izango ditugu.

### Zer lege daude bidean?

Adibidez, industria legearen il-doak aurkeztu dira, eta espero dugu urte politiko honetan onartzea. Lege garrantzitsua da, ez baitugu ahaztu behar BPGaren %31 ordezkatzen duela industriak. Gainera, aurreikusita dago osasun legea kurtso honetan helduko dela. Gaur egun 1990eko legea dugu indarrean, eta errealitatea asko aldatu da orduetik. Osasunak erronka handiak ditu aurrean, eta horri aurre egiteko oinarriak jarri nahi dizkio legeak: etorkizuneko lehen mailako arreta nola bideratu, prebentzio ikuspegi berriak... Bestalde, kurtso honetan izango da landa eremu eta despoblazio legea. Nik uste dut azken urte hauetan Nafarroako Gobernutik neurriak hartu dituela eskualde batzuetan —adibidez Pirinioetan—, baina orain beharrezkoa da populazioaren desoreka bat ez izateko Nafarroa osorako balioko duen lege bat izatea.

### 2015etik aurrekontuak adostu dira, eta 2025ekoa ere bide beretik doa?

Hurrengo egunak garrantzitsuak dira. EH Bilduk bere ekarpenak egiteko jarrera adierazi duen heinean espero da 2025eko aurrekontuak izatea. Funtsezko tresna bat da politika aurrerakoiak aurrera ateratzeko.

### Zailago izango al da fiskalitatearen eztabaida?

Gobernu kideek eta EH Bilduk euren proposamenak jarri dituzte

# «Autogobernuaren inguruan berme gehiago nahi ditugu, alde bikotasuna paper erreba baita bestela»

## UNAI HUALDE

Nafarroako Parlamentuko lehendakaria

Eskuin muturraren ondorioz giroa «zapuztu» dela onartu du, eta, horri begira, parlamentarien jarrerari buruzko araudia bultzatzen ari da. Azaldu du Foru Hobekuntzaren lantaldea autogobernua sakontzeko aukera dela.

mahai gainean. Gure ekarpenak egin ditugu. Errenta ertainen eta apalen zerga presioa apur bat jaitzea proposatu du Geroa Baik, eta autonomoen artean ere neurriak hartzeko proposatzen dugu.

### Eskuin muturraren presentziak nola eragin du jardunean?

Vox saiatzen ari da bere agenda sartzeko. Migrazioari buruzko azkeneko mozioarekin, adibidez, ikusi dugu urrats bat gehiago egin nahi izan dutela. Diskurtso mingarri bat erabili dute, etorkinak kontzeptu negatiboekin eta delinkuentziarekin lotuz.

### Oro har, nola jokatu behar da Voxen aurrean?

Ezin dugu onartu zenbait diskurtsori oihartzuna ematea parlamentu batean. Nafarroako gizartea oso elkarbizitzaren aldekoa izan da, eta hura ordezkatzen duen erakundea da. Indar aurrerakoiak erabaki genuen eztabaidetan ez parte hartzea. Oraintxe bertan, bertan behera utzi dugu aipatutako mozio hori, eta fiskaltzara eraman da gorroto delitua izan daitekeelako. Azkenean, zailak ditugu oihartzun handiagoa ez ote diezun ematen.

### Horiek horrela, parlamentuko lehendakari gisa egin duzu

parlamentarien jokabiderako kode baten proposamena, eta hori lantzeko lantaldea abiatu berri da. Zertan datza?

Alde batetik, aurreko legealdian parlamentuko araudia berritu zen, eta puntu batzuk aldatzeko agindua ematen zuen. Horrez gain, eduki gehiago sartu nahi izan ditugu. Batetik, errespetu faltak arautu nahi ditugu, ikusita zer gertatu den azken hilabeteetan. Bestetik, parlamentuko bilkuretara justifikaziorik gabe ez joatea eta horrelako gauzak arautu nahi ditugu. Parlamentarien betebeharrak da osoko bilkuretan eta batzordeetan egotea, eta hori uztartu behar da talde txikien errealitatearekin. Baina horrek ezin du justifikatu ez joatea justifikaziorik gabe.

### PP eta UPN, beti begira besteak zer egingo?

Bai, UPNk jarraitzen du beste leku baten bila. Hitz politikak esaten ditu, beste indar batzuek hurbildu nahi duela. Dena den, gure kasuan behintzat, eztabaida eta akordioa nahi dutela esaten badute ere, betiko jarrera ikusten diegu. Oraindik ere blokeak oso markatuta daude. UPNk PPrekin eta Voxekin bere blokea osatzen

du. Ez da ikusten oraindik bloke aurrerakoa eta eskuineko blokea hautea.

### Barkosek Sanchezekin Moncloan trafiko eskumena itzultzeko konpromiso hori hitzartu zuenetik sei urte pasatu dira. Zergatik kostatzen ari da hainbeste?

Penagarria deritzogu. PP eta Vox trafiko eskumenaren transferentzia oztopatzen ari dira, baina ez dut dudarik egingo dela. Geroa Baik eta EAJk lan handia egin dute.

### PPk adierazi du baiezkoa eman lukeela bi gobernuek Guardia Zibilak trafikoa zaintzen jarraitzeko hitzarmena eginez gero.

Edozein kasutan, hitzarmenarena gero doa. Lehen auzia da norena den ahalmena, eta hori Nafarroarena da. Transferentzia egin behar da, eta gero eztabaidatu daiteke nola gauzatu. Guretzat bakarrik eta eskusibotasunez egin behar luke Foruzaingoak. Egia da Polizien Foru legea onartu zenean [2018ko azaroan] trafikoko guardia zibilak foruzain egiteko pasabide bat bideratu zuela gehiengo parlamentario batek —UPNk, PSNk eta PPK eta Podemos-eko kritikoei osatutako

Orain Baiko bi parlamentarik—. Gu ez geunden ados: ez Katalunian, ez [Euskal Autonomia] erkidegoan ez zen hori gertatu.

### Kataluniako finantzaketari buruzko akordioak sortutako harrabotsaren harira, Maria Txibite eta Imanol Pradales lehendakariak gutun bateratu bat atera dute bertako finantza eta zerga esparrua babestuz. Arriskuan ikusten duzu?

Ez dago arriskuan, zeren gure sistema alde bikotasunean oinarritua dago eta finantzaketa autonomikotik kanpo dago. Zentralistek eta jakobinoek kolokan jartzen dute gure sistema. Mingarria da, gero pedagogia egin behar delako. Foru Hobekuntzaren lantaldeko batzordeburua zara. Zertan dago?

Kurtso hasieran berraktibatu egin da lantaldea. Adituen agerraldiak entzuten ari gara, eta interesgarriak dira. Badirudi gehiengo bat dagoela eguneratze horrekin ados, baina, gure ustez, eguneratze hori autogobernuaren garapenera ikuspegitik egin beharko litzateke.

### Zer esan nahi duzu?

Eguneratu behar dira eskumenak, eta berriak sartu. Beste estatutu





IDOIA ZABALETA / FOKU

## Ortuzarrek ez du argitu EBBko buru izaten segituko duen, erabakia hartua badu ere

- Abiatua den barne prozesua ez du «baldintzatu nahi».
- Autogobernuan «erreforma administratibo soil batetik» harago jo nahi du.

zuen erabaki bera hartuko duela. Bada, azken horri lotutako mugimendua izan daiteke, hain zuzen ere, Maria Eugenia Arrizabalagak Eusko Legebiltzarra utzi izana. EAJk atzo iragarri zuenez, Marijo Etxegoienek hartuko du haren lekua legebiltzarrean. Agirrezabalagak Gipuzkoako Batzar Nagusietako EAJko eledun segituko luke, eta EBBko kide ere bada. Horri buruz galdetuta, Ortuzarrek ez du xehetasunik eman nahi izan.

### Aitor Biain

Erabakia du, baina ez du argitu. Andoni Ortuzar EAJren EBB Euzkadi Buru Batzarreko presidentek hori adierazi zuen atzo Radio Euskadin. EBBko buru izaten jarraitu behar duen edo ez, Ortuzarrek argudiatu zuen ez duela bere erabakia argitu nahi, buruzagitzen barne prozesua ez baldintzatzeko: «Jendeak hitz egiteko askatasuna izan behar du».

Badira ahotsak Ortuzarrek segitzeari oztoporik ikusten ez diotenak. Joseba Diez Antxustegi Eusko Legebiltzarreko EAJren bozeramailea izan zen hori publikoki adierazi zutenetako bat. Esan zuen ez diola ikusten «inolako arazorik» Ortuzarrek jarraitzeari, hauteskundeetako emaitzak argudio gisa hartuta. Itxaso Atutxa BBB Bizkai Buru Batzarreko presidentek ere «gogotsu eta indartsu» ikusten du Ortuzar, eta etorkizunera begira aukera guztiak zabalik daudela adierazi du aste honetan, berak politika eta BBBko buruzagitza utziko duela azaltzeko eman zuen elkarriketan. Baina irekia dago EBBren buruzagitza ere, beste hautagai batzuen izenak ere babiltzalako.

Barne mugimenduak hasiak dira. Horren erakusle da, esaterako, Iñigo Ansolaren izena hizpidera ateratzea, Atutxaren ordezkariaren Bizkaiko adararen ardura hartzeko. EEE Energiaren Euskal Erakunde presidentek ohiaren ibilbide politikoa nabarmendu zuen atzo Ortuzarrek, baina «aukera bat» baino ez dela ere esan zuen.

Bizkaian soilik ez, aldaketak espero dira Araban eta Gipuzkoan ere. Jose Antonio Susok ere iragarri zuen ez duela ABBn jarraituko, eta Joseba Egibarrek ere iradoki

### Autogobernua

Bestetik, Ortuzarrek atzo esan zuen hasi dituela alderdien arteko lehen harremanak, etorkizuneko autogobernuari buruz hitz egiten hasteko. Aurrez aurre oraindik inorekin elkartu ez bada ere, bileren sorta «aurki» hasiko duela iragarri zuen. Nabarmendu zuen «modu diskretuan» egingo dituztela. Ortuzarrek ez zituen ezkutatatu zailtasunak, baina datorren urteko Gabonetarako akordio bat lortzea espero du. Aurrez, ohar-tarazi du nazio aitortza estatutu berrian ez jasotzea «etsigarria» litzatekeela.

Esan zuenez, estatutu berri bat negoziatzeaz gain «estatus berri bat» negoziatuko dutela. Izan ere, azaldu du EAJk Gernikako Estatutuaren «erreforma administratibo soil batetik» harago jo nahi duela, autogobernuaren alorrean «jauzi kualitatiboa» emanez, aurretik eraikitakoa «hautsi gabe» betiere, eta ezer «asmatu» edo «hutsetik abiatu» gabe.

Uste du garai egokia dela 1979ko estatutuan «konpondu ezin izan ziren gai kritiko» batzuei heltzeko, tartean nazio aitortza eta Espainiarekiko aldebikotasunaren berme sistema. Adierazi zuen autogobernua «higatuta» dagoela egun, eta, beraz, ez dela nahikoa estatutua eguneratzea edo eskumen berriak jasotzea.

Espainian eta Euskal Autonomia Erkidegoan orain zabalik dagoen abagunea baliatu behar dela uste du Ortuzarrek, Madrilen Sanchezen gobernuaren sostengatzen duten alderdiak erabakigarriak baitira Gasteizen ere. «Leiho bat dugu zabalik, baina ez da infinitua», ohar-tarazi zuen. «Kontua ez da inor behartzea, baina ezta elkarriketari eta proposamenei betoia jartzea ere».

batzuek eskubide berriak aitortu dizkiete bere herritarrei. Hemen ez da halakorik egin. Garrantzi handia du aldebikotasun gehiago bermatu ahal izatea. 40 urteko ibilbide honetan ikusi dugu eskumenak aitortuak daudela, baina ez dagoela orekarik Nafarroaren eta estatuaren artean aldebikotasun hori egiazkoa izateko. Autogobernuaren inguruan berme gehiago nahi ditugu, aldebikotasuna paper erreka baita bestela.

**EAJk barne prozesua abiatu du.** Pertsonetatik harago —batzuetan ematen baitu pertsonen eztabaidetan sartzen garela— garrantzitsua da bizi dugun garaia. 2025eko martxoko batzar orokorrean bost eztabaida gune bideratu dira —politikoa, programatikoa, nazioarteko harremanak, gizartearekin harremanak, eta antolakuntza eta egitura—. Eztabaida hori behar-beharrezkoa da, eta egin behar da ahalik eta zabalena.

**EAJk botere instituzionalari eutsi dio, baina boto galera izan du. Pertsona aldaketa bat dator eta norabidea argi duzue? Non-dik jo behar du?**

Eguneratu behar du proiektu politikoa, erakundeetako lanari



«Ezin dugu onartu zenbait diskurtsori oihartzuna ematea. Nafarroako gizartea oso elkarbizitzaren aldekoa izan da»

«Konpromisoa alderdiarekin dut. Alderdikideek erabakitzen duten tokian egoteko prestasuna azaldu dut»

begira iparrorratz bat izateko. Gizartea asko aldatu da, eta neurri berriak asmatu behar ditugu XXI. mendeko gizartearekin konektatzeko. Hori da erronka. Horrek ekarriko du ditugun egitura klasikoak berrikustea eta gizartearekin ditugun erlazioak eguneratzea.

**Pertsonen dagokienez, Itxaso Atutxak agur esan du. Unai Hualdek zer egingo du?**

Datorren astean Nafarroan herri batzarrak egingo dira, eta horiek proposatuko dituzte Napar Buru Batzarreko presidentea, kideak eta nazionalean Nafarroa ordezkariak duten kideak. Prozesua behetik gora doa. Proposatuek onartu behar dute gero, eta bigarren buelta batean aurkezten dira hautagaiak.

**Zu gogoz zaude?**

Zortzi urte daramatzat, eta konpromisoa alderdiarekin izan dut. Alderdikideek erabakitzen duten tokian egoteko prestasuna adierazi dut.

**Eta nola dago Nafarroako EAJ?** Urte garrantzitsuak izan dira EAJrentzat. Zortzi urteotan afiliazio mailan %20 hazi gara. Koalizioen esperientzia alderdiarentzat ona izan da. ●